



POXPOLO ETA MOKOLOREN 'RUN-RUN' GUREAN

Pailazo ezagunek bihar grabatuko dute emanaldia 17:00etan; sarrera euro bat balioko du >4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2007-11-23

VURTEA 1.295 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Urrezko ezteiak ospatuko ditu aurten Txotxongilo Jaialdiak

TOLOSA Urteurrenaren harira azken urteetan ikusmin gehien sortu duten taldeak ariko dira; bihar ekingo diote

LEIHOA Aurtengo sail berezian, Europan tradizio sendoa duen herrialdea omenduko dute, txekiar errepublika 2-3



Jazkerak, ohiturak, koloreak,... Saharako herritarren islada ikus daiteke erakusketan. A. IMAZ

URRUTIKOA GERTUTIK EZAGUTZEKO AUKERA BERTATIK BERTARA

IBARRA Kultur Truke Hamabostaldiaren baitan, Ekuador eta Sahara gertutik ezagutzeko erakusketa jarri dute Kultur Etxean 6



Udal ordezkariak eta herriko gazte batzuk atzo bulego berrian. I. TERRADILLOS

Tolosako Gazte Infomazio Bulegoa aro berrian murgildurik

TOLOSA Bulego berritua eta gazteei zuzendutako zerbitzu berriak aurkeztu zituzten atzo 3

Villabona
optika

Kale Berria 23A
Villabona
943 11 18 40



Cia. Nal de Hanoi txotxongilo taldearen (Vietnam) Marionetas sobre el agua obrako uneetako bat; hauen emanaldiak Beotibarren izango dira. HITZA

Zilarrezko ezteiak ospatzeko, orain arteko arrakastatsuenak bisitan

Kultura » 25. urteurrena ospatzeko, aurretiaz jendeari gehien gustatu zaizkion saioak ikusi ahal izango dira berriro Titirijai 2007an

ESTI EZEIZA

Bihar hasiko da Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia «Gipuzkoako udazkeneko kulturegitarauko ekimen garrantzitsuenetako bat». Aurten gainera zilarrezko ezteiak beteko ditu Titirijaiak. Hala, 25. urtebetetze hori ospatzeko, aurreko urteetan ikusmin berezi sortu duten taldeak etorriko dira berriro. Atzo aurkeztu zuten Tolosako Ekinbide Etxeak antolatutako ekimena.

Ikusi ahal izango diren emanaldien artean, azpimarragarria da Vietnameko urgaineko txotxongiloena. Cia. Nal del hanoi taldea duela urte gutxi etorri zen Tolosara, beraien emanaldia aurkeztera, eta izugarritzko arrakasta izan zuten. Hemen izango dira ere, Ko-

lonbiako Manicomio de muñecas taldekoak, eta Txekiar Errepublikako Vita Marcik eta Naive Theatrekoak.

Txotxongilo taldeek teknologia berri ugari erabiliko dituzte beraien emanaldietan. Arretxeren esanetan, «horrek adierazten du, txotxongiloen mundua bizirik dagoela eta eboluzionatzen jakin dutela.

Haur eta helduentzako saioak

Atzoko aurkezpenean, Miguel Arretxe, Jaialdiko Lehendakariak agertu bezala, duela 25 urte, jaialdia antolatzen hasi zirenean, umei zuzenduta zeuden saioak. Egun, aldiz, «adin guztietako ikuslegoarentzako jaialdia dela esan daiteke». Orotara 26 talderen emanal-

diak ikusi ahal izango dira Tolosan barna prestatutako zazpi «antzoki» ezberdinetan. Hala ere, Tolosako saioez gain, jaialdia Euskal Herriko beste hainbat txokotara ere zabalduko da. Txotxongilo taldeek bira txiki bat egingo baitute Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroan.

Txekiar leihoa

Aurtengo sail berezian, Europar txotxongiloetan tradizio sendoena duten herrialdeetako bat izango da protagonista: Txekiar Errepublika, hain zuzen ere. Herrialde horren enbaxadore artistiko gisa goi mailako sei talde etorriko dira eta 600 piezatik gora biltzen dituen txotxongilo erakusketa izango da ikusgai Aranburu jauregian. Hau zabalik egongo da bihartzik aurrera, aste guztian zehar. Hona ekarritako txotxongiloak, Europako estatuko museoeetan, Instituzioetan eta martxan dauden konpainietan dauden txotxongiloak dira.

Tradizioaren seinale da, Pragako Unibertsitatea izan zela Txotxongilo fakultatea ireki zuen lehenengotakoa. Hala, txotxongilolari handiak trebatu izan dituzte bertan. Bestalde, 1929an, Pragan bertan sortu zen UNIMA, Txotxongiloen Nazioarteko Elkarte.

25 urteak biltzen dituen liburua

Zilarrezko ezteiak ospatzeko, Tolosako Ekinbide Etxeak liburu bat osatu du, jaialdiaren zenbait xehe-tasun bilduta. Datorren astean aurkeztuko den liburu hau grafikoa da nagusiki. Jaialdiaren sorreran, bilakaeran eta gaur egun dagoen tokira iristeko egin behar izan duen bidean berebiziko garrantzia izan duten unen eta pertsonen berri ematen du.

Nazioarteko zentru iraukorra

Jokin Bildarratz alkateak esan bezala, «duela 25 urte jaiotako haurrak badu dagoeneko izena, TO.pic». Hau, «mundu mailako

ametsa zen Tolosarentzat, eta dagoeneko martxan da». Duela hilabete inguru hasi ziren TO-pic (Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa) eraikitze lanak. Euskal Herria plazan joango da egoitza, eta aurreikuspenen arabera, 2009an irekiko ditu ateak.

Bildarratzek azaldutakoaren arabera, «finantzaketa nola egingo den zehaztuta dago jada, orain falta dena da, harreman juridikoak zehaztea». Hau da, jabetza Udaltxarena bada ere, kudeaketaz Tolosako Ekinbide Etxea arduratuko da, eta harreman hori zehaztu beharra dago. Hau, hurrengo Osoko Bilkuran edo erabakiko dutela aipatu zuen alkateak.

Proiektu honen kostua sei milioi eurotako izango dela aurreikusitako dute Udalekoek. Bestalde, TEE hasi da dagoeneko langileak hartzen. Zentru integral honek teknologia berriekin egingo du lan, eta eskainiko dituen tailerrez gain, antzoki bat ere izango du.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

» EGITARAUA

Azaroak 24, bihar

■ **Leidor antzokia.** 20:00etan, Drak taldearen (Txekia) *Flying babies* ikuskizuna.
■ **Kultur Etxea.** Teatro Haraporen (Argentina) *Amor y circo*.

Azaroak 25, etzi

■ **Leidor antzokia.** 17:00etan, Mancomio mulecos-en (kolombia) *Ricitos de oro*.
■ **Gorosabel auditorioa.** 12:00etan, 17:30etan eta 18:30ean, Gar produktioak-en (Euskal Herria) *Txo itxoïn* ikusgai.
■ **Ferialekua.** 18:00etan Divadlo Alfa taldearen (Txekia) *Los tres mosqueteros*.
■ **Kultur Etxea.** El retal taldearen (Madrid) *El enamorado y la muerte* ikusgai.
■ **Beotibar pilotalekua.** 17:30ean eta 19:30ean, Cia. Nal de Hanoi-
ren (Vietnam) *Marionetas sobre el agua*.

Azaroak 26, astelehena

■ **Leidor antzokia.** 12:00etan eta 15:00etan, Drak taldearen (Txekia) *Flying babies* ikuskizuna.
■ **Gorosabel auditorioa.** 09:45ean eta 10:30ean, Gar produktioak-en (Euskal Herria) *Txo itxoïn* ikusgai. 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan, Atelier 313ren (Bulgaria) *El baron de Munchausen* ikusgai.

■ **Ferialekua.** 11:00etan eta 15:00etan, Divadlo Alfa taldearen (Txekia) *Los tres mosqueteros*.
■ **Kultur Etxea.** 10:30ean, 15:00etan eta 18:00etan, La Chana taldearen (Salamanca) *Vulgarcito* izango da ikusgai.
■ **Beotibar pilotalekua.** 17:30ean eta 19:30ean, Cia. Nal de Hanoi-
ren (Vietnam) *Marionetas sobre el agua*.
■ **Kasinoa.** 20:30ean eta 22:30ean, Teatro Haraporen (Argentina) *Amorato* ikusgai.

Azaroak 27, astearte

■ **Leidor antzokia.** 12:00etan eta 15:00etan, Drak taldearen (Txekia) *Flying babies* ikuskizuna.
■ **Gorosabel auditorioa.** 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan, Divadlo Lisen-en (Txekia) *Robinson* ikusgai.
■ **Ferialekua.** 11:00etan eta 15:00etan, Divadlo Alfa taldearen (Txekia) *Los tres mosqueteros*.
■ **Kultur Etxea.** 10:30ean, 15:00etan, eta 18:00etan, Teatro pluzen (Asturias) *La leyenda del farol* ikusgai.
■ **Beotibar pilotalekua.** 11:00etan eta 15:00etan, Cia. Nal de Hanoi-
ren (Vietnam) *Marionetas sobre el agua*.
■ **Kasinoa.** 20:30ean eta 22:30ean, Teatro Haraporen (Argentina) *Amorato* ikusgai.

Azaroak 28, asteazkena

■ **Leidor antzokia.** 12:00etan eta 15:00etan, Taptoe taldearen (Belgika) *Vuela* ikuskizuna.
■ **Gorosabel auditorioa.** 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan, Karromato taldearen (Txekia) *Circo de madera* ikusgai.
■ **Ferialekua.** 11:00etan eta 15:00etan, Divadlo Alfa taldearen (Txekia) *Los tres mosqueteros* ikusgai izango da.
■ **Kultur Etxea.** 10:30ean, 15:00etan, eta 18:00etan, Txo-xongillo taldeak (Euskal Herria) *Zergaitik* obra eskainiko du.
■ **Beotibar pilotalekua.** 11:00etan eta 15:00etan, Cia. Nal de Hanoi-
ren (Vietnam) *Marionetas sobre el agua*.
■ **Kasinoa.** 20:30ean eta 22:30ean, Fernan Cardamaren (Andaluzia) *Historias de media suela* ikusgai.

Azaroak 29, osteguna

■ **Leidor antzokia.** 12:00etan eta 15:00etan, Divadlo Lisen-en (Txekia) *Robinson* ikusgai.
■ **Gorosabel auditorioa.** 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan, Naive Theaterren (Txekia) *Juanito y la alubia magica* ikusgai.
■ **Ferialekua.** 11:00etan eta 15:00etan, Divadlo Alfa taldearen (Txekia) *Los tres mosqueteros*.

■ **Kultur Etxea.** 10:30ean, 15:00etan, eta 18:00etan, Victor Antonov-en (Errusia) *El circo de los hilos* ikusgai.
■ **Beotibar pilotalekua.** 11:00etan eta 15:00etan, Cia. Nal de Hanoi-
ren (Vietnam) *Marionetas sobre el agua*.
■ **Kasinoa.** 11:00etan eta 15:00etan, Fernan Cardamaren (Andaluzia) *Historias de media suela*. 20:30ean eta 22:30ean, Teatro Dejavuren (Herialde Katalanak) *Pin ups* emanaldia izango da ikusgai.

Azaroak 30, ostirala

■ **Leidor antzokia.** 12:00etan eta 15:00etan, Dolls Theaterren (India) *Hisrorias de animales* ikusgai.
■ **Gorosabel auditorioa.** 09:45ean eta 10:30ean De Spiegel taldearen (Belgika) *El dragon rojo* ikusgai. 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan, Theatre Lutinen (Frantzia) *Pescado pescador* ikusgai.
■ **Bonerenea.** 11:00etan eta 15:00etan, Vira Marcic-en (Txekia) *El principe Bajaja*. 20:30ean eta 22:30ean, La Chanaren (Salamanca) *Entre diluvios*.
■ **Kultur Etxea.** 10:30ean, 15:00etan, eta 18:00etan, Kaman-
te teatro taldearen (Asturias) *Que viene el lobo*.
■ **Beotibar pilotalekua.** 11:00etan

eta 15:00etan, Cia. Nal de Hanoi-
ren (Vietnam) *Marionetas sobre el agua*.

Abenduak 1, larunbata

■ **Leidor antzokia.** 17:00etan eta 19:00etan, Nizhni Novgorod-en (Errusi) *El Elefante* ikusgai.
■ **Gorosabel auditorioa.** 12:00etan, 17:30etan eta 18:30ean De Spiegel taldearen (Belgika) *El dragon rojo* ikusgai.
■ **Kultur Etxea.** 12:00etan, Buratini-
niren (Galizia) *Palabras de caramelo* ikusgai.
■ **Beotibar pilotalekua.** 17:30ean eta 19:30ean, Cia. Nal de Hanoi-
ren (Vietnam) *Marionetas sobre el agua*.

Abenduak 2, igandea

■ **Leidor antzokia.** 17:00etan eta 19:00etan, Taptoe taldearen (Belgika) *Vuela* emanaldia izango da ikusgai.
■ **Gorosabel auditorioa.** 12:00etan, 17:30etan eta 18:30ean De Spiegel taldearen (Belgika) *El dragon rojo* ikusgai.
■ **Bonerenea.** 12:00etan, Teatre Arbole taldearen (Aragoi) *Los tres cesditos* ikuskizuna taularatu-
kote dute.
■ **Beotibar pilotalekua.** 17:30ean eta 19:30ean, Cia. Nal de Hanoi-
ren (Vietnam) *Marionetas sobre el agua*.

Aro berriari ekin dio Gazte Informazio Bulegoak

Gizartea » Gazte Informazio Bulegoa aurkeztu dute zerbitzu ugariarekin, informazio ugari eskura izan dezaten

IÑIGO TERRADILLOS

Herriko gazteek eskuragarri dituzte dagoeneko Gazte Informazio Bulegoaren zerbitzu berriak. Izan ere, atzo eginiko aurkezpenen Udaleko ordezkariak eta teknikariak esan bezala, «Gazte Informazio Bulegoak aro berriari ekin dio; zerbitzu "gaztetu" egin dugu egungo teknologietara egokitu eta informazioa zabaltzeari garrantzia emaneko».

Gazteengandik gertu egotea da ekimen honekin Udalak lortu nahi duena, eta era berean, informazio bulegoa kokaturik dagoen Kultur Etxera etor daitezela animatu, bertako zerbitzuak ezagutzeko, eta intereskoa izan daitekeen edozein gai jorratzeko. Hala, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak azaldu zuenez, «Udal honek hasieratik egin du gazteenganako apostua, horregatik, gazteen eta Udalaren artean eraiki behar den zubia erosoaz izatea gustatuko litzaiguke, bien arteko komunikazio egoki baten bidez».



Angel Alonso, Jokin Bildarratz, Joxelu Andueza eta Nestor Arana. I. TERRADILLOS

Informazio bulego berria

«Edozein proposamen jasotzeko, ideia berriak lantzeko eta elkarrekin lan egiteko prest gaude», azaldu zuen Joxelu Andueza Gazteria zinegotziak. 1985. urtean nazioarteko gazteriarren urtearen harira sortu zela gazte informazio zerbitzua, gogoratu zuen Anduezak. «Gaur egungo gizartean, informazioa eskura izatea garrantzitsua da, baina askotan informazioaren uholdean galdurik aurkitzen dira gazteak, eta horregatik, Gazte Informazio Bulegoak informazioa bilatu, sailkatu eta zabaltzeko eginko, eta balia bideak jarri».

Arreta eta integrazioa

Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa Nestor Arana izan zen atzoko aurkezpenen. «Duela 25 urte hasi diren gazteekin lanean, eta gazte informazio bulegoak jartzea beharrezkoa zela ikusten genuen; baina, egun, ordea, egiten dugun galdera hau da: Nola erakarri gazteak informazio bulegora? Zergatik etorri behar du? Hori lortzea da gure erronka», azaldu zuen. Hala, informazio orokorra badutela gazteek eskura esan zuen, baina bulegoetan tokiko informazioa topatuko dutela, eta «horretaz gain, arreta pertsonalizatu ere

izango dute; azken batean, gaur egungo gizartean gazteak integrotzea da lortu nahi duguna».

Zerbitzu ugari eskura

Kultur Etxearen beheko solairuan dago kokatua Tolosako Gazte Informazio Bulegoa, eta aurrerantzean gazteei zuzenduriko zerbitzu berriak izango dituzte. Angel Alonso Gazteria teknikaria izango da bertan gazteentzat interesgarriak diren gaien (etxebizitza, enplegua, elkartegintza...) inguruko argibidek ematen; espezializatutako dokumentu fondoari (liburutegia, aldizkariak, txostenak...) eta informazio ezberdinei (bekak, dosierak, lehiaketak...) buruzko kontsulta egin ahaliko da; Tolosako gazte informazioaren aldizkari elektronikoa kontsultatu; Informazio antenak, hau da, ikastetxeetan, kiroldegian, Musika Eskolan eta Aranburun egongo diren panelak elikatuko dituzten gazteak; Txartel desberdinen tramitazioa ere egin ahaliko da; Infoklik gazte informazio zerbitzuaren informatika gunea egongo da; baita martan zegoen SMS zerbitzua ere, 13 eta 30 urte bitarteko tolosarren-tzat, informazio anitz jasotzeko; eta elkartegintza, gazte elkarteei aholkularitza eta materiala bezalako zerbitzuak eskaintzeko.

» ZERBITZUAK

■ **Arreta pertsonalizatua.** Bulegoan bertan, 943 670383 telefono zenbakian edo gazteria@tolosakoudala.net helbidean.
■ **Dokumentu fondoa.** Liburutegietan, aldizkarietan edo txostenetan espezializatutako informazioari buruzko argibideak.
■ **Informazio ezberdina.** Bekak, dosierak, lehiaketak, oposizioak eta enplegua, fitxak eta gaikako karpeta bilduma kontsultatatzeko aukera izango da.
■ **Informazio Antenak.** Gazteentzako informazioa zabaltzeko arduratuko diren gazteak dira.
■ **Informazio Panelak.** Kiroldegian, ikastetxeetan, Aranburun eta Musika Eskolan egongo dira, informazio interesgarriekin.
■ **Txartelen tramitazioa.** BGazte txartela edota aterpetxeetarako txartela bezalakoak tramitatzeko aukera.
■ **Infoklik.** 2 ordenagailu daude gazte informazio zerbitzuarekin eta programa ugariekin.
■ **SMS zerbitzua.** 13 eta 30 urte bitarteko tolosarren-tzat informazio jasotzeko mugikorren: lana, opo-saketak, bekak, ikastaroak...
■ **Elkartegintza.** Gazte elkarre-
tarren bat osatzen dutenentzat zerbitzu desberdinak eskura.



Yarza, Sardon, Gorostidi, Sarasola (moderatzalea) eta 'Aizperro' izan ziren kirolari buruzko solasaldian. HITZA

Iban Nikolai didjeridu jotzailearen kontzertua, gaur

Aduna » Uztartza aterpetxean izango da emanaldia, 22:00etan; perkusioaren laguntzarekin emango du kontzertua

I. GARCIA

Adunako Kultur Astearen baitan gaur Iban Nikolai didjeridu jotzaileak emanaldia eskainiko du, perkusioa lagun duela. 22:00etan izango dasaioa Uztartza jatetxean.

Munduko haizezko instrumenturik zaharrenetakotzat hartzen da didjeridua. 40.000 urtetik gora omen ditu eta australiar aborigenen kulturatik dator. Hauek beraien kantu, ospakizun eta errituarekin erabili ohi dute.



Josu Naberanek mitologia izan zuen hizpide. HITZA

«**Gustura**» orain artekoarekin Kultur Astearen orain arte antolatutako diren saioekin «gustura» daude antolatzaileak. «Saio guztietan bete da gela eta beraz jendearen erantzuna oso ona izan da». Gai ezberdinak jorratu nahi izan dituzte: kirola, musika emanaldiak, mitologia...

Loatzo musika eskolak Zezilia Deunaren oromenez antolatutako ekitaldiekin bat egingo du bihar Kultur Asteak. Hala, eskolako 500 ikasleek emanaldia eskainiko dute 11:00etan hasita. Arratsaldean, 17:00etan pailazoak izango dira eta ondoren barrikoteak, taloak, gaztainak eta ardoa dastatzeko aukera izango da. Etzirako, Ezkiotsason dagoen Igartubeiti base-rriira irteera antolatuko dute.

'Run-Run' emanaldia grabatuko dute bihar Poxpolok eta Mokolok

Villabona » Gurea aretoan egingo dute grabazioa, 17:00etan hasiko den saioan; sarrerak euro bat balioko du

IMANOL GARCIA

Poxpolo eta Mokolo pailazok bihar Gurea aretoan emango dute *Run, Run* emanaldia. 17:00etan izango da eta euro bat balioko du sarrerak. Iaz ere areto berdinean egin zuten grabaketa saioa.

Ez da izango, baina, *Run, run* emanaldiaren azkeneko saioa. «Udaberrira arte emanaldi honekin jarraituko dugu», azaldu du pailazo bikoteak. Grabaketa orain egiteak, gero DVDa behar bezala kaleratzeko denbora hartu nahi dute. «Patxadaz egin nahi dugu eta ahal den produkturik onena ateratu nahi dugu», azaldu dute.

Urtero ez dute produktu berri bat ateratzeko eskualdeko pailazo



Poxpolok eta Mokolok Bidegoianen egindako emanaldia. ESTI EZBIZA

hauek. «Ez gara mugitzen maila horretan», adierazi dute. «Zerbait prestatuta dugunean ateratzeko dugu merkatura».

80 emanaldi baino gehiago
Urte bete inguru daramatzate Poxpolo eta Mokolo pailazok *Run, Run* emanaldiarekin. «80 saio baino gehiago egin ditugu. Oso

ondo funtzionatu du emanaldiak», zehaztu dute. Hurrengo ikuskizuna datorren udako prestatutako dute.

Biharko emanaldia grabatu ahal izateko eskerrak eman dizkiote Villabonako Udalarari. «Edozein saio bezalakoa izango da. Jendeak oso ondo pasako du», adierazi dute Poxpolok eta Mokolok.

Tourreko lehenengo euskaldunak omenduko ditu Urkamendik

Zizurkil » Gaur izango da ekitaldia eta Haimar Zubeldia eta Eneritz Iturriagaetxeberria izango dira omenduak

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Urkamendi elkarteak, urtero bezala, Frantziako Tourreko lehen euskaldunari omenaldia egingo dio. Gaur izango da ekitaldia-afaria eta omenduak Haimar Zubeldia eta Eneritz Iturriagaetxeberria izango dira. Agurra dantzatu ondoren, afaria egin eta sari banaketarekin amaituko dute.

Trikitilarien eta bertsolarien saioak izango dira eta afarian gonbidatuta txirindularitzaren munduko hainbat lagun izango dira.

B Blogteka

info



Kike Amonarriz Gurea aretoan

VILLABONA » Aitzondo Taldeak antolatuta, Kike Amonarriz tolosarrak hitzaldia eman berri du Gurea aretoan. *Euskararen transmisioa nola bideratu familietan* izan zen gaia eta Kikek horretarako entzuleek planteatutako galderetatik abiatu zen. Euskaraz hitz egiteko modu ezberdinak daude eta denak baliogarriak dira. Nolabait euskara hizkuntza, moldatu behar dugula egoera ezberdinetara, izan zen bere mezua. Horretarako euskara zuzena erabiltzea baino, komunikaziorako bidea izan behar duela adierazi zuen. Beti bezala oso interesgarriak izan ziren bere hausnarketak eta motza egin zitzaigun hitzaldia. FLEMING IKASTETXEARREN BLOGA

txokoa h

2 sarrera pare

Carlos Nuñez
+
Alos Quartet

irabazleak:

- Mari Jose Amonarraiz (Tolosa)
- Garbiñe Mujika (Villabona)

Azaroak 23 ostirala • 21:00etan Tolosako Leidorren



Hegaldia + egonaldia + futbol partidua
ZOKETA

2 pertsonentzat

- HEGALDIA
- BI GAUERAKO HOTELA
- LIVERPOOL / BOLTON WANDERERS partidurako sarrerak Liverpoolko Anfield estadioan **abenduek 2an**

Gainera, Xabi eta Mikel Alonso tolosarren kamiseta bana!

Irabazlearen izena, azaroaren 25ean argitaratuko dugu.





Amaia Agirre Villabonako bertsolaria. HITZA

Agirre, bihar, finalaurrekoan

Kultura » Finalerako txartela lortzen saiatuko da Amaia Agirre bihar, Oiarzungo Elorsoro kiroledegian

ERREDAKZIOA

G Puntuko finalaurrekoak izango dira bihar, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Oiarzungo Elorsoro kiroledegian, hain zuzen. Bertan, Amaia Agirre finalerako txartela lortzen saiatuko da. Villabonako bertsolariaz aparte, Iñigo Manzidor "Mantxi", Jon Maia, Iker Zubeldia, Xabier Sukia eta Arkaitz Oiarzabal "Xamoa" ariko dira bertsoan.

Aurreko saioan, hau da, Eibarren egin zuen saioan garaipena lortu zuen Agirrek, nahiz eta puntua emandako saioan irabazi zuen bakarrik. 493 puntu lortu zituen guztira, final-laurdenetako hirugarren puntuazio hoberena izan zelarik.

Finalerako autobusa

Alegiko bertsoskolako kideak aurtengo Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalera joateko autobusa antolatuta dute. Bestalde, finalerako sarrerak ere salgai dauzkate. Finala abenduaren 16an izango da Donostiako Illunbe zeren-plazan, 17:00etan. Bai sarrerak, eta bai autobuseko txartelak, Alegiko Kultur Etxean daude salgai. Autobusekoak 6 euro balio du, eta sarreretan aldiz salneurri desberdinak daude. Hamasei urte beharokoek zortzi euro ordaindu beharko dute, Bertsozale elkarteak bazkideek, bazkide txartela erakutsi ondoren, hamabi eta gainerakoak aldiz, hemezortzi.

Izena emateko azken eguna abenduaren 5a izango da. Autobuserako txartelak erosten dituztenei momentuan emango zaizkie, baina sarrerak eskatzen dituztenei izenak zerrenda batean apuntatu dira, eta abenduaren 10etik 14 arte Kultur Etxetik pasa beharko dute jasotzera.

Musikarion arartekoa



» Kale kantoitik

Joxemi Saizar

Hotza. Zerkausiko kristaldegia zabaldu gabe. Entzuleentzako aukirik ez. Entzuleek kaso handirik ez. Umeak korrika eta builaka klarinetetjole bakarlariaren ondoren. Metro batera. Belarria jaten. Ez, ez da egoera asmatua, ez. Errealitateak fikzioa gainditzen du oraingotan ere. Musika Bandaren azken kontzertuan gertatu zitzaizun. Alde teknikoak (kristaldegia, aulkia) aurretik eskatuta zeuden. Umeena, nori eskatu behar zaio? Non zeuden gurasoak?

Horregatik Luis Mari Gartzia Artetxe Bandako zuzendariak atzo HITZAKO elkarrizketan esaten zuela gutxi iruditzen zait. Motz gelditu zen. Entsaio ordu askoren ondoren kontzertura jende gutxi biltzek min ematen du. Noski. Baina lehen aipatutako utzikeria horiek ere bai. Gehiago agian.

Kaleko musikarion arartekoa eskatzen dut. Guk behintzat inoren babesik ez dugu. Txaranga, txistulari, dultzainero, banda, akordeoi, abeslari... asko ikusi ditut babesik gabe kale kantoit honetan. Gutxi baloratzen da musikarion borondatezko lana. "Tristura hegan paseatzen da/arratsaren solaskide, zioen Imanol kantariak. Modu suabe batean esateagatik.

Hausnarketa hauek gure zaindarien egunaren harira egiten ditut. Bere zaintza ez da nahikoa, nonbait. Igande eguerdian Leidorren Shostakovich-en *Jazz suite 2*. zenbaki ederra jotzen ari garenean, harpari arreta berezia jartzeaz aparte (gure berrikuntza nagusia hori izango baita), norbaitek nire hitzak gogoan baldin baditu, nahikoa. Eta ni ez naiz ari harpajotzen.

Dena ez da txarra. Kontu atseginak beste baterako. Bitartean, gora Santa Xexili! (edo Koikilia al da?).

Z Zurea da hitza

Congo-ri buruz, ikus-entzunezkoa

Gizartea » Gaur eskainiko du Tomas Madinabeitiak Olarraingo elkartearekin, 20:00etatik aurrera

ERREDAKZIOA

Olarraingo Lagun Artean elkartearekin, Congo gaitzat harturik ikus-entzunezko emanaldia izango da gaur gauean. Tomas Madinabeitia, hainbat urtez Congon lanean egon dena, izango da hizlari ikus-entzunezkoaren ostean.

Madinabeitiak urte horietan guztietan, bideratu dituzten proiektuak eta izandako bizipenak partekatuko ditu saiora hurbiltzen direnekin. Emanaldia gauean izango da, 20:00etatik aurrera, Lagun Artean ekarteak duen egoitzan.

Ezkongaiak 2008-09

Herri Irratia Donostia 1224om/94.8fm

IZARRA BITXITEGIA. Juan XXIII Plaza eta Geltoki 19. Lasarte-Oria. 943-364945. Oparia: urrezko ezkontza-eraztunak eta ezkontza-horniak.

AUZMENDI SASTREA. Bergara, 1-Donostia. 943-424060. Senargaiantzako jantziak. Oparia: se-nargai jantziarentzako 300 €-tako erosketa txartela.

CODORNIU. 94.4235708. Oparia: Cava Anna Brut Nature 3 kaxa eta Codorniu Taldeko Viña Pomal Selección Aniversario erreserba 2 kaxa ardo beltza

ATALAIA JATETXEA HOTELA. Txingudi merkatal parkeko sarreran. 943.635518. Oparia: bikotearentzat afari-gosaridun gaua hotelean.

SILKEN AMARA PLAZA HOTELA 943-464600 Oparia: Silken kateko hotel batetan 2 pertsonentzako asteburua (2 gau + gosariak).

BAYON. Bergara, 23 - Donostia. 943-425087. Emaztegai jantziak. Oparia: emazte-gai jantziarentzako 300 €-tako erosketa txartela.

ARAETA JATETXEA. Zubieta Auzoa -Araeta-. Telefonoa: 943.362049. Oparia: Ezkontzako txanpaina.

VALLINA. Ezkontzako kotxea. Erabateko luxua guztion eskura. Telefonoa: 943.393.848. Oparia: ezkontz-eguneko kotxea.

SANCHEZ INPRIMATEGIA. Easo, 33. Donostia. 943-465308. Katalogoak eta gonbidape-nak. Oparia: ezkontzarako gonbidapenak

FEEDBAK ORKESTRA. Kalitate goreneko musika mota guztiak. 637-513293. Oparia: ezkontzako emanaldia %20eko beharpenarekin.

ELI VELI MEN. PELUQUERÍA-ESTÉTICA HOMBRE. Iparragirre 18, Gros -Donostia-. 943.290623. Oparia: Beharpen txartela.

FOTOGRAFÍA AMAIUR ARGAZKIAK. Usandizaga 2, Gros -Donostia-. 943.321569. Oparia: argazki erreportajearen beharpen txartela.

e-posta... novios@herri-irratia.com

Ezkongaiak 2008-09 Lehiaketa, "Revista Novias de Euskadi" aldizkariaren kolaborazioarekin

2008-09an ezkontzen bazara, azaroaren 26a aurretik hau bete eta ondorengo helbideren batetara bidali:

HERRI IRRATIA - DONOSTIA
GARIBAI 19 20004 DONOSTIA

Senargaiaren izen-abizenak:

Tel.:

Helbidea:

Posta-Kodea:

Herria:

Emaztegaiaren izen-abizenak:

Tel.:

Helbidea:

Posta-Kodea:

Herria:

Ezkontzaren gutxi gora-beherako data:

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO FINALERA

Azaroak 24, larunbata
OIARTZUN, Elorsoro kiroledegia
18:00etan

Amaia Agirre Iker Zubeldia
Iñigo Manzidor "Mantxi" Xabier Sukia
Jon Maia Arkaitz Oiarzabal

www.gpuntuko.com **hitza**



Jazkerak, ohiturak, koloreak... Saharako herritarren islada ikus daiteke Benito Izagirre kultur etxean. A. IMAZ



Jantziak, musika instrumentuak, giltziak, poltxak... aurki daitezke Ekuadorreko mahaiairen gainean. A. IMAZ



Saharako haurrek jolasteko ibiltzen duten autoa. A. IMAZ



Ekuadorreko gune batetako instrumentu musikalak. A. I.

Kultura eta ezagutza elkartu dira egun hauetan Ibarren. Biak uztarririk doazen hitzak dira eta hitz hauen esanahien saltsa herriko Kultur Etxean aurki genezake azaroaren 30a bitarte.

Urruntasunaren gertutasuna

ASIER IMAZ

Hitz potloek in esanda, Ibarren Kultura Truke Hamabostaldia hasia da. Hau zer den? Hitz potloek inoiz azalduko ez duten zerbaite, nahiz eta esanahiaren jabe egiten saiatu. Zergatik? Argazkietan bakarrik azaltzen direlako, hau da, prentsan edo karteletan bakarrik azaltzen diren hitzak direlako.

Zer da beraz Ibarren joan den asteartean Kultur Etxean hasi zena? Benito Izagirren bertan aurki dezakegu erantzuna: «desertuko hondarra berezia da, desertuko larrosa bezain berezia».

Sahara eta Ekuador

Bi nazioen deiadarrak aurki daitezke Ibarren Kultur Etxean, azaroaren 30a bitarte behinik behin. Izan ere hamabostaldi batetaz hitz egiten ari gara.

Ekuador eta Saharako herrietatik ekarritako lekukoak aurki daitezke Ibarren egun hauetan. «Pilahuines komunitatearen traje tipikoa» ipintzen du txoko batean; edo «ohitura garrantzitsuztat dute bisitarien kolonia eskaintzea» beste batean.

Argazkiak, marrazkiak eta bi mahai alde banatara. Ekuadorreko bandera mahai baten soinean, Republica Saharai jartzen duena bestean. Gainera berriz, urratsak; kitarra txiki bat, flauta ezberdinak, poltxak, telak, lepokoak... Bi mahaien artean, aulkia aurkitzen dira hutsik. Zergatik daude aulkia hutsik erakusketaren erdian? Galde dezake gerturatzeko denak; Nearek orduan, «egun hauetan antolatutako dauden hitzaldietarako prest aurkitzen dira» erantzungo dizu. «Bideo emanaldia egon zen adibidez asteartean». Izan ere erakusketan elementu bakoitzak bere esanahia dauka, nahiz eta hasera batean arrotz suertatu. Aulkia jartzen aritu denak badaki lan ho-

rren esanahia. Aulkia hutsik erdian ikusten dituenak, lan hori ulertu egin behar du, bere esanahia ulertzeko.

Etzi Kultur Etxeko atea itxirik egongo direnez, kalearen txanda iritsiko da. Esperanza Latina Elkarte dantza taldearen eskutik, Ekuadorreko dantza erakustaldia eskainiko dute kolore biziz, 12:00etan aurrera herriko kaleetan zehar.

Urruna ez dago hain urrun

Finean ezagutza hutsaz ari gara, kasu honetan ezagutzara bultza gaitzakeen lehen urrats urrunez. Sarri hitz potloek mugatzen dituzten urratsak, baina laburrak izan arren, ezagutzaren mugak puskatzeko nahikoak izan daitezkenak.

» EGITARAUA

Azaroak 25, etzi

■ 12:00etan. Esperanza Latina Elkarte dantza taldearen eskutik Ekuadorreko dantza erakustaldia herriko kaleetan zehar.

Azaroak 26, astelehena

■ 19:30ean. Silvia Munt-en *Lalia* dokumentalaren emanaldia.

Azaroak 28, asteazkena

■ 19:30ean. Tolosaldea Sahararekin Elkarte kideen eskutik *Saharako Errefuxiatu Kanpamendura bi-daia* hitzaldia.

Azaroak 29, osteguna

■ 19:30ean. *Inmigrantearen integrazioa* hitzaldia Ufredo Morearen eskutik Benito Izagirre kultur etxean.

Azaroak 30, ostirala

■ 19:30ean. Kultura elkartrukearen hamabostaldiaren amaiera ekitaldia Seni Ekitza Elkartearen.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** 206 GTI. 4 urte. 7.500 euro. Aukera bikaina. 656 41 02 80.

BESTERIK

■ **Zakurra.** Border Collie baten kume emea oparitzen da. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 658 70 59 12.

Laburrak

Ismael Fakhri Burgosko espetxera mugitu dute

TOLOSA ● Erredakzioa itxi baino minutu batzuk lehenago Hitzak jakin ahal izan duenez, Ismael Fakhri *Isma* eskual preso Martuteneko espetxetik Burgoskora (Espainia) mugitu dute. Fakhri pasa den ekainaren 10ean espetxeratu zuten Martutenen.

Emeterio Sorazuren omenaldirako autobusa

IBARRA ● Kristau Elkartetik Emeterio Sorazur egin duena eskertzeko, etzi omenaldia egingo diote. 11:00etan Meza Nagusia egingo dute eta ondoren Izkunen herri bazkaria. Bertara joateko autobusa jarri dute 13:30ean Kultur Etxetik, itzulera berriz 19:00etan.

Santa Luzia Azokara irteera abenduaren 13an

LEABURU-TXARAMA ● Udalak eta Uli Mankomunitateak abenduaren 13rako irteera antolatuko dute Zumarragako (Gipuzkoa) Santa Luzia Azokara. Bazkaria ere bertan egingo da eta izena emateko Txaramako kultur osasun gunean edo udaletxean egongo da aukera.

Ibarren Santurtziren aurka jokatu du bihar

IBARRA ● Bizkaian jokatu du Ibarren areto futbol taldeak bihar 18:30ean. Aurrean Santurtzi taldea izango du eta azken jardunaldian etxean galdutako hiru puntuko lortu nahiko ditu talde ibarrrak. Santurtzira joateko autobusa ohiko lekutik irtingo da 15:30ean.

Gaur eta bihar ekitaldiak egingo dituzte Tolosaldeko hainbat herritan, «euskaldunon independentzia aldarrikatuz»: mendi martxa, auto karabana eta elkarretaratzeak egingo dituzte

Independentzia Eguna etzi

ERREDAKZIOA

Bihar Independentzia Eguna da, eta Tolosaldeko hainbat herritan ekitaldi ezberdinak egingo dituzte. EAE-ANVk «independentziaren aldeko aukera egiten du, Euskal estatutaren osaketaren aldekoa, hain zuzen».

Gaur Villabonako, Asteasu eta Zizurkilgo herriak bateratuta, 19:30ean auto karabana egingo dute Leibi lantokitik abiatuta. Bihar, berri, 11:00etatik 13:00era atxikimendu bilketa egingo dute. 18:30ean, aldiz, Joxe Arregi plaza-tik abiatuta manifestazioa egingo dute. Ondoren, gaztain jatea egingo dute Villabonako plazan.

Amezketan mendi martxa Larraitzera

Amezketan, 10:00etan mendi martxa bat egingo dute Larraitzera plazatik abiatuta, eta bertan Es-

teban Nieto eta Joxemi Zumalaberen alde landatutako zuhaitzak bisitatuko dituzte. Ondoren, plazan atxikimendu bilketa egingo dute eta argazkia aterako dute. Bukatzeko, 12:30ean kontzentrazioa egingo dute han bertan.

Ibarran eta Tolosan

Ibarran, bihar ere, 10:30ean eskuorri bat banatuko dute, eta 12:00etan, berriz giza-katea egingo dute kaleetan zehar.

Tolosan, bihar 11:30a inguruan, Triangulon eskuorriak banatzen ariko dira, baina ez dute ekitaldi berezirik egingo.

Aurten espainiar inbasioaren 500. urteurrenerako 5 urte falta dira, eta «euskaldunok inoiz baino arrazoi gehiago dauzkagu independentziaren aldeko apustua egiteko. Urrats berriak emateko unea iritsi zaigu eta bagoaz».

'Bota Patsa' antzezlanaren Alegiko Kultur Etxean izango da bihar, 22:00etan

Kultura » Etzi goizean, berriz, Alegiko Mendi Elkarteak antolatuta, Otsabio mendira egingo dute irteera

ERREDAKZIOA

Alegiko II. Azaro Kulturalari egun gutxi falta zaizkio bukatzeko, datorren ostegunean baitute azken ekitaldia. Baina oraindik gauza erakargarri asko falta dira: bihar, adibidez, Txalo antzerki taldearen *Bota Patsa* antzezlanaren izango da ikusgai Kultur Etxean, 22:00etan.

Emanaldi asko egin dituzte Tolosaldean Iker Galarza eta Joseba Usabiaga aktoreek eta denetan barrea eragin die jendeari. Saioa gaztelaniaz eta euskaraz egingo dute.

Antzerkia Kutxak sustatu eta finantzatu du.

Otsabiora mendi irteera, etzi

Etzi Alegiko Mendi Asanbladak antolatutako mendi irteera bat egingo dute: kasu honetan Lizartza eta Alto artean dagoen Otsabio mendira joango dira eta 09:00etan abiatuko dira plazatik.

Gaztain jatea eta puzgarriak eta zezen mekanikoa izango dira

Ugarte » Aurten ere frontoian goizean eta arratsaldean haurrentzako Ugarte auzoan, frontoi inguruan bihar. Izan ere, gaztain-jatea izango da iluntzean, eta aurretik, egunean zehar, bai goizean eta baita

arratsaldean ere, haurrentzako puzgarriak eta zezen mekanikoa izango dira.

Gaztainen aurretik saheski errea afalduko dute. Egunean zehar, berriz, haurrentzako puzgarri bat eta zezen mekanikoa izango dira frontoian, 12:30etik 14:00etara bitartean, eta 15:30etik 19:00etara. Ondoren, gerturatu diren guztiak txokolata izango da. Aurretik 70 bat lagun biltzen dira elkarrean gaztain-jaterako, eta aurten ere, hala elkartuko dira seguruenik.

N. URBIZU

Urtero bezala, aurten ere egun berezia egingo dute Amezketako Ugarte auzoan, frontoi inguruan bihar. Izan ere, gaztain-jatea izango da iluntzean, eta aurretik, egunean zehar, bai goizean eta baita

Sormena lantzeko tailerra izango da bihar

Baliarrain » Haurrek Ani Martinezekin pinak, lepokoak, kareta eta entziero txiki egingo dute, Kultur Elejiraren azken ekitaldia izanik

Sormen tailerra da tailer hau: eskulanak egiten dituzte eta haurren sormenari egiten diote lekua. Entziero txikian haurrek maskarak egingo dituzte kartoiarekin, in-txaurrekin, makilekin... Ondoren, entziero txiki bat egingo dute zezen gurgildunekin. Bigarren atalean pinak, belarritakoak, nahiz trenzak egingo dituzte.

Berez, ekitaldi hau joan den larunbatean egitekoa zen, baina Ani Martinez gaixo jarri zen, eta bertan behera geratu zen. Beraz, Kultur Elejira bihar bukatuko da.

ERREDAKZIOA

Bihar Baliarraingo Kultur Elejiraren baitan haurrentzako tailer erakargarriak daude kultur gelan. 17:00etan txapak, lepokoak, pitxiak eta entziero txiki egingo dituzte Ani Martinezekin.



Entziero txiki egingo dute ondoren, kareta eta guzti. E. EZEIZA



AHT ez inposatzearen alde

TOLOSA » Luesma jauna, edota Sanz izan dira, besteak beste, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak aipatutako, «AHT inposatzea» leporatuz. Atzo iluntzean el-

karretaratzea egin zuten Tolosako Triangulon. Agintariek «eztabaida ukatuz ere, argumentu eza baino ez dute erakusten». N. URBIZU

Laburrik

Zazpi-Itturrikoek gaur etxean bi jokatu dituzte

PILOTA » Gaur Amezketako frontoian bi partida izango dira 21:00etan: binaka ariko dira Zazpi-Itturriko jubenilak Intzaren aurka eta gero, Añorgaren aurka nagusien mailan. Bihar Ibarren ariko dira Aurrera-Saiazen kontra seniorrak, eta delegatuak esan bezala «garrantzitsua da norgehiagoka hori, sailkatzeko bat irabaztearen nahikoa baitugu».

Patxi Renobalesen argazki erakusketak jubilatuen artean

ALEGIA » Patxi Renobales alegiarren argazki erakusketak hilabete bukaera arte egongo da ikusgai jubilatuen tabernan. Bertan, Renobalesek alegiarren eguneroko bizimodua islatu nahi izan du: herritarrek agertzen dira, gauzarik sinpleenak ere egiten; hala nola, jaten, erostketan, hitz egiten, erretzen, paseatzen... Asteartetik igandera bitartean daude ikusgai.



Herritar bat bizikletan. P. RENOBALDES

Diru laguntzak eskatzeko epea, hilaren 30a arte

TOLOSA » Urtero bezala, zabalik dago jadanik Tolosako Osasun eta Gizarte zerbitzuetako alorrean lan egiten duten talde eta elkarteek Udalarik egiten dizkieten diru laguntzak eskatzeko epea. Hilaren 30eko 13:00a arte dago aukera. Arauak eta eskaera orriak www.tolosakoudala.net webgunean eta Gizarte Zerbitzu eta Osasun sailaren daude, goizez (943 69 74 60).

7. Moto-Bira etzi izango da, Ibarrik Nafarroa aldera

IBARRA » Etzi Langostino Moto Kultur elkarteak 7. Moto-Bira antolatuko du. San Bartolome plazatik abiatuko dira 09:30an. Ibarrik atera eta Nafarroa aldera joango dira, Lekunberritik igaroz, Doneztebe, Leitza eta berriz Ibarra ailegatzeko. 13:30ean iritsiko dira. Hamaitakoa egiteko 5 euro ordaindu behar da eta abisatu egin behar da: 630 78 42 13, 670 41 79 15.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldeen@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldeen_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leizaldekoko beste 77 eragile
S.L.ko kideak:
'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil
Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): 902 82 02 01

Hitza-k Bai Euskarari
Gipuzkoako Foru Aldundia

A Agenda

Musika
■ **Leitza.** Su ta gar musika talde ezagunaren kontzertua Leitza. Gazteak.
■ **Tolosa.** Carlos Nuñez gaitajole galiziarra eta bere taldearen kontzertua Leidor aretoan 21:00etatik aurrera.
» GUARDIAKO FARMAZIAK
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro zuzoa, 9. 943 675118.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanenetan iritziaren erantzunik.

Pagotxa onenaren bila

Tolosa » Jende asko bisitatu du jada Oargik antolatu duen mendira; igandera arte azokako eta igandera arte egongo da zabalik



Mendi material ugari topa daiteke Oargin: arropa, botak, ... I. TERRADILLOS

diaren baitan antolatutako mendira azokan. Botak, eskiak, niki eta gal-tza termikoak, zapatilak, zirak, forropolarrak, jertseak, zakuak, kankin dendak... Denetik aurki daitezke elkarteak (Santa Maria kalea). Pagotxaren bat topatu eta bertara gerturatu nahi dutenek igandera arte dute aukera. Hau izango da hiru egun hauetan izango duten ordutegia: gaur, 18:00etatik 21:00etara, bihar 16:00etatik 21:00etara eta etzi 16:00etatik 20:00etara.

Gaur, proiektzioa
Mendi Hamabostaldiaren ekitaldeiekin jarraituz *Ama Dablam sherpen mendia* proiektzioa eman-go dute gaur Haur Liburutegian (Errota) 19:00etan.

A Agurrak



Urte askoan politte!
Ioar Olano Sanchez (Tolosa).

Urtebete. Muxutxo goxoak izebaren partetik.



Zorixonak!

Alejandro Legarra eta Mª Karmen Amundarain


Gaur 50 urte ezkondu zinetela. Zorixonak zuen biloba Beñat, Gaizka, Jon eta Alexen partetik. Ondo pasa!

bete eta bidali/eraman edo deitu:
Tolosaldeko eta Leizaldekoko Hitza.
Araba etorb. 5, behe - 20400 Tolosa.

Izena.....Abizenak.....
.....NA.....
Helbidea.....
Herria.....P.K.....
Telefonoa.....
k/k □□□□□□ □□ □□□□□□□□
P.elektronikoa.....

arreta zenbakia
902-82 02 01
(astegunetan 8:30-20:30 / larunbatetan 9:00-19:30)

egin zaitez orain **Hitzaren harpidedun** eta zure **ametsetako bidaia** eskura dezakezu!
bi laguntzako astebeteko egonaldia



Deiak edo esku orriak jasotzeko azken eguna: abenduak 12
Zozketa eguna eta irabazlea egunkarian: abenduak 20

HITZA
orain gertuago

kanaria uharteak egipto
jordania riviera maya
salvador (brasil)
costa rica istanbul india

Ahorzatuena Elbaio 20100. Logo argiaren dala. Pertsonala. Inbentzioa, baina, jatorriaren diruzko zuzen pertsonala. TOLOSALA HERRIA HEDABIDEAK. Euren hitzari automatizatu batza jasotzeko dirua, enpresak dituen enkiztatzen berri emateko, zuzen esku diru. Kuztako, zuzentzenko, espezializatu eta kuratzaileko. Orokorrean enpresa, gaur eguneko enpresak, zuzen hitzari enpresa, hitzari hitzari. HITZARI HITZARI. Euren hitzari automatizatu batza jasotzeko dirua. Enpresak dituen enkiztatzen berri emateko, zuzen esku diru. Kuztako, zuzentzenko, espezializatu eta kuratzaileko.